

IÑAKI BARRIOLA IRIGOYEN (1906-1998)

Bilbo, 1999-I-29

Iñaki Barriola Irigoyen mediku ospetsua Donostian jaioa zen 1906ko abuztuaren 15ean (bataio izenez, *Ignacio Maria* zen baina lagunartean beti *Iñaki*), eta hiri berean hila da 1998ko azaroaren 3an.

Donostiako Maristetan batxiler ikasketak egin ondorean Madrilén egin zituen medikuntzako lizentziaturakoak, ondotik Parisen hobetuz eta gero Vienako Unibertsitatean doktoradutza. 1936an itzuli zen handik eta bere tesia aurkeztu: *Tratamiento Quirúrgico del cáncer de recto*, zeritzana, garai haietarako abantaila handikoa noski.

Iñaki, Abelino Barriola Aizpurua (1885-1944) euskal idazlearen semea zen. Abelino, euskarazko zenbait antzerkiren egilea eta Donostian zinegotzi zelarik, 1915. urtean, bere proposamenez sortu zen "Escuela de Lengua y Declamación Eúskaras" deritzan erakundea, antzerkigintzaz hainbeste lan egingo zuena.

Anaiarteko gerra hura gogorra izan zen, izatez hain bakezale ziren Barriola familiakoentzat. Aita Pauen exilaturik hil zen eta Iñakik berak, bere ekintza soila medikuntzaz jardutea besterik izan ez bazuen ere, abertzale izatea zuen bere pekatua, hori pekatua baldin bada; eta gerran parterik hartzeke, heriotzara kondenatua izan zen. Horren oroitzak latzak idatzi zituen *19 condenados a muerte* deritzan liburuan, baina ez zuen izan argitaratzerik 1978. urtera arte. Azkenik, heriotzatik libratu zen, baina hala ere, hiru urtetako kartzela zigorra ezagutu zuen.

Hala ere, gerraren ondotik, medikuntzaren deontologia ongi beteaz aritu zen. Baina, horrez gainera, idatziz eta Elbira Zipitriaren ikastoleri laguntza ematetik Santo Tomas Lizeoaren sorketan parte hartzeraino. Laguntza horien esker garriz, 1965eko azaroaren 24an Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen.

Bere arreba Mirentxuk, Donostiako Garibai kalean zuen denda hura, gudaostean ginen euskaltzale guti batzuen biltoki izaten zen. Maritxu Barriola beti baitzen zernahitarako prest. Ondo oroitzen naiz denda hartan isilpean nola erosten nituen hurrei euskaraz irakurtzen erakusteko Ixaka Lopez-Mendizabalen *Xabiartxo* zeritzaien liburuak, John Zabalo "Txiki"-ren irudi edergarri apaindua. Liburu hau *Euskalerraren Alde*-k saritua zen 1923. urtean, 1925ean izan zuen lehen argitalpena eta 1932an bigarrena. Bigarren honek isilpeko argitarapenak izan zituen, 1932. urte bera gordeaz, faksimil gisa, eta erosketa haietan inoiz ez nien galdetzen non eta zelan argitaratua zenik, edozer gertaturik ere, zenbat eta gutiago jakin hobe. Baina handik eramaten nituen aleek abegi ona zuten eibartar euskaltzaleen artean, batez ere ikastoletan.

Gure gizartean, alde batetik zein bestetik, zenbaiten basatikeriak ikusiz, zuzentzaunerako zerbaít egin beharrez, 1980ko maiatzaren 27an, Iñakiren etxean bildu ginen

bakezale talde bat, ospetsu ziren J.M. Barandiaran, J. Caro Baroja, K. Mitxelena eta I. Barriola bera buru gisa zirelarik, Eugenio Ibarzabal eta Idoia Estornesek prestaturiko "Aún estamos a tiempo" zeritzan manifestu hura sinatuz kaleratzeko. Zeren, gertatuak gertatu, iruditzen zitzaigun bake biderako indarkeriak baztertu behar zirela, demokratikoki jokatu behar zela. Konpromezu hori aurrera eraman ahal izateko bere etxea iriki zigun Barriolak.

Kultur aldizkarietan egin zituen lanak kontutan hartzekoak dira eta, adibidez, horietako guti batzuk aipatuko dut: *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*-en kolaboratzaile izan zen 1948.etik aurrera. Aldizkari hortako azken lanetariko bat da, "Los Amigos del País y el euskera" (ikus *Bol. R.S.V. de los Amigos del País*, 1991, 181-197. orr.). Aranzadi Zientzia Elkarteke *Munibe* aldizkarian, 1954tik hasi zen. Hor agertu bai zuen "Algunas peculiaridades de la sangre vasca" hitzaldi hura (ikus *Munibe*, 6. urtea, 1954, 322-327. orr.), gai hortaz ordurarterko medikuntza ikerketak eta Rh- delakoaren bereizkuntzak zer eta zertan ziren lehen aldiz agerraraziz. Aranzadi Zientzia Elkartek honek antolaturik, *Homenaje a D. Joaquín Mendizabal Gortazar* deitzen liburukian, ordea, "Las aguas de Cestona y los caballeros de Azcoitia". *Boletín de Estudios históricos sobre San Sebastián*, 10. alean (1976) "El cólera de 1834 en San Sebastián". Horiez gainera beste zenbait lan hor-hemenka sakabanaturik, adibidez, *Muga* aldizkariaren 11. alean (1980), "Algunos médicos notables de la Bascongada". Medikuntzaren historiak Salamancako Unibertsitatean katedradun zen Luis S. Granjel jaunari bere biziko laguntza eman zion, beronek aitortzen duenez, eta han agertu zion Petrikillo sasimedikuari buruzko liburua. Baina, gogoangarriak dira gai hortaz *RIEV*-en (*Revista Internacional de los Estudios Vascos*) euskaraz idatzirik eman zituen saioak.

La Academia Errante zeritzan mugimenduko taldekide zen eta Jose Miguel Barandiaranen omenaldiz bildu zirenean, "Aranzadi, Azkue, Barandiaran y Eguren" zeritzan hitzaldia eman zuen 1963an. Urte berean, beste hitzaldi bat, "Médicos guipuzcoanos de la generación del 98". Eta, bi urte geroago, "La medicina donostiarra en San Sebastián. Curso breve" zeritzana. Guziok, Auñamendi argitaldaria La Academia Errante-ren liburu berezietan kaleratu zituen.

Euskal Herrian Unibertsitatea sortze lanetan nabarmendu zen 1963-1979. urteetan eta horren ondoriozko kontu emateaz idatzi zuen liburu berezi bat.

Medikuntzako beste idazlan askoren artean, honako liburu hauen egilea dugu: *El enigma de la muerte de Napoleón I* (Donostia, 1950), *La medicina popular en el País Vasco* (Donostia, 1952), *Los Amigos del País y la medicina* (Donostia, 1963), *19 condenados a muerte* (Donostia, 1978), *El curandero Petrikuillo* (Salamanca, 1983), eta *Gestiones guipuzcoanas por una universidad oficial en el País Vasco, 1963-1979* (Bilbo, 1983).

Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen zuzendari izan zen 1983-1985. urteetan. Hori baino lehen, 1985ean, Juan Antonio Garmendiari lagundu zion 1768-1793 urteetako *Extractos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País* direlako XII liburukiak argitaratzen. Bestalde, kontutan hartzekoa da, hil ondorean, medikuntza gaiak agertu den lana: "Viejos recuerdos" deitzen (ikus, *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País-Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte*, LIV, 1998, 5-14. orr.).

Euskal Herriko Unibertsitateak, bere lanengatik, Urrezko domina eman zion. Donostiako Udalak Hiritar Meritudun izendatu zuen, Mediku Kolegioak Ohorezko izendapena Urrezko ezaugarriarekin. Gainera, Eusko Ikaskuntza eta Sociedad Vasca de Historia de la Medicina-ko ohorezko zen.

Iñaki Barriola, Koldo Mitxelena zenaren lagun handia zen eta honen heriotza ondotik *Egan* aldizkariaren ale berezi bat *K. Mitxelena, gizona eta hizkuntza* izenburupean eskaintzea pentsatu nuenean, Iñakiri ere lan bat eskatu nion eta zintzo bete zuen eskaria, "Mitxelena eta Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País" lan jakingarri hura igorritz (ikus *Egan*, 1987, 3-6 alea, 185-188. orr.).



Iñaki Barriola, Medikuko kolegioak ohorezko izendatzean, 1994.ean.

Baina hori ez zen euskaraz idazten zuen lehena, zeren Eusko Ikaskuntzak *RIEV*-en, XXXI. urtekoa, bi ale berezitan *Julio Caro Barojari Omenaldia* (1986) eskaintzean, han agertu baitzuen "Jose Manterola" iker lana, bigarren liburukiko 655-660, orrialdeetan datorrenez. Horrez gainera, hurrengo urtean, *RIEV*-en bertan, beste honako saioa hauek datoz auskaraz: "Anton Erkoreka. Análisis de la Medicina popular vasca" eta "Peru Abarka-ren irakurpen berria", XXXII, 127-130 eta 301-314, orrialdeetan.

Hamabost urtez Colegio Médico de Guipúzcoa-ko idazkari izan zen 1934tik aurrera eta buru 1978-1993. urteetan. Eta 1994ko urrian *Guipúzcoa médica-Medikuen ahotsa*

deritzan Sendagileen Elkarteko aldizkaria sortzeaz, lehen alearen 4. orrialdean agertzen da orduan egin zitzaion omenaldiaren berria eta ale beraren, 10-11. orrialdeetan, dator bere idazlan bat, "Guipúzcoa Médica" deritzana, non agertzen zuen, 1911. urtean Kolegioa sortu zenetik, hirurogeita hamar urteren buruan izan dituen ekintzen berri ematea.

Iñaki Barriola, gizon zuzen, zintzo eta benetan ona zen; euskaltzale bikaina eta musikazalea. Goian bego.

Juan San Martin